

***Iseka Gazte Taldea,
Atarrabiako aisialdia,
eta Iseka esku-hartzeak
eragiten dituen
ondorioak euskararen
erabileran eta
motibazioan***

Eneko Anduaga Insausti
Tutoretza: Jone Miren Hernández

Atarrabia, 2012ko uztailean

AURKIBIDEA

- 1. SARRERA**
- 2. KARRIKALUZE, AISIALDIA ETA EUSKARA**
- 3. ATARRABIA**
- 4. GAZTEAK**
- 5. ISEKA GAZTE TALDEA**
- 6. IKERGAIA**
- 7. UNIBERTSOA**
- 8. HELBURUAK**
- 9. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA**
- 10. KANPO LANA**
 - 10.1. GAZTE IZATEA**
 - 10.2. ATARRABIA**
 - 10.3. ISEKAKO GAZTETXOEN AISIALDIA**
 - 10.4. ISEKAKO GAZTETXOEK DUTEN IRITZIA, BIZIPENAK ETA PARTE HARTZEKO MOTIBAZIOAK.**
 - 10.5. ISEKAREN BAITAN SORTZEN DIREN HARREMANAK**
 - 10.6. ESKU-HARTZEAK EUSKARAREN ERABILERAN ETA MOTIBAZIOAN DUEN ERAGINA**
 - 10.7. KARRIKALUZE ELKARTEA**
- 11. ONDORIOAK**
- 12. BIBLIOGRAFIA**

Iseka Gazte Taldea, Atarrabiako aisialdia, eta Iseka esku-hartzeak eragiten dituen ondorioak
euskararen erabileran eta motibazioan

Laguntza eskaini didaten guztiei, biba zuek!

1. SARRERA:

HIZNET gradu-ondoko sakontze egitasmoa egiteko proposatu ziguten lehen momentutik, oso argi ikusi nuen hurbileko zerbait ikertu nahi nuela. Azken boladan askotan entzuten dut, *¿pero cómo es posible que nuestros hijos no hablen en euskara entre ellos?*.

Hori dela eta, Atarrabiako Karrikaluze Euskaldunon Elkartearen egitasmorik arrakastatsuen aukeratu nuen ikerketa lana egiteko, Iseka Gazte Taldea, hain zuzen ere.

Gero eta haur eta gaztetxo gehiago ari da D ereduan ikasten, baina erabilera datuak ez dira igo. Gaur egun, argi geratzen ari da euskararen normalizazioa ez dela helduko hezkuntza arautuan bakarrik indarra eginez, nahiz eta irakaskuntza funtsezkoa izaten jarraitu.

Atarrabian (eta Iruñerria osoan) haur eta gaztetxoek euskaraz egiten duten gauza bakarretako bat ikastea da, beraz, funtsezkoa da hezkuntza arautuak dituen mugak onartzea eta haur eta gaztetxo hauek, ikasteaz gain, bestelako estimulu positiboak euskaraz jasotzea.

Haur eta gaztetxoen artean oso garrantzitsua da aisialdia, beraz, esparru horretan eragitea funtsezkoa da hauek euskara ez dezaten bakarrik ikasketekin identifikatu eta euskara gehiago erabil dezaten edo gutxienez euskararekiko motibazio eta bizipen positiboak izan ditzaten.

Baina haur eta gaztetxoen aisialdian eragiteak, ez du esan nahi horretan indar guztia jarri behar dugunik. Aisialdian eragitea eta gizarteko gainerako esparruetan eragitea osagarria da, are gehiago, normalizazioaren pisu guztia ezin zaie, inolaz ere, belaunaldi gazteei utzi.

Aurrerago ikusiko dugun moduan, haur eta gaztetxoen euskara erabilera azaltzea gai konplexua da, aldagai asko sartzen dira jokoan, baina garrantzitsuenetako bat ingurunea da, eta tamalez, Atarrabia oraindik espazio erdaldundua da.

Ikerketa honetan Atarrabian gazte izateak zer esan nahi duen ikertu nahi dut, horretarako gaztetxo euskaldunen errealitatea zein den jakin nahi dut, batez ere haien aisialdia. Honen bitartez, jakin nahi dut zein aspektutan eragin daitekeen euskararekiko motibazioa eta erabilera hazteko.

2. KARRIKALUZE, AISIALDI EGITASMOAK ETA ISEKA GAZTE TALDEA

Iseka Gazte Taldea, Karrikaluze, Atarrabiako Euskaldunon Elkarteak abian duen gazteentzako aisialdi egitasmoa da.

Karrikaluze Euskaldunon Elkarteak 1998an sortu zen, Atarrabiako euskararen erabileran eragiteko helburuarekin. Hasieratik elkarte irekia, autonomia eta

alderdi politikoetatik independentea izan da. Elkarteak euskaraz funtzionatzen du eta une honetan¹ 134 bazkide ditu.

Elkarteak honako helburuak ditu:

- Atarrabiako euskaldunen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bitartekoak jarri.
- Euskaraz bizi nahi duen orori zerbitzuak eskaini.
- Euskararen erabilera areagotzeko guneak sortu.
- Euskaldunen eta euskaltzaleen aisialdirako kultur jarduerak antolatu.

Egun, Karrikaluzek abian dituen egitasmorik garrantzitsuenak hiru ardatz nagusitan sailkatzen ahal dira:

- BI PUNTU ZERO aldizkaria.
- Kultur jarduerak: Antzerki tailerra, *Abesmartxa* kantuzaleak, euskarazko antzerki eta musika emanaldien programazioa.
- Haur eta gaztetxoentzat aisialdi eskaintza: *Larunblai*, *Jauzi*, *Iseka* eta *Udablai* (hiri-udalekuak) eta *Udako Gazte Kanpaldia*

2001eko Erabileraren Kale Neurketen emaitzak aztertu eta gero, haurren erabilera oso baxuak zirela ikusi zuten eta Karrikaluzek gaztetxoentzat aisialdi programa bat sortzea erabaki zuen 2002ko urrian. Horretarako Lasarte-Oriako *Kuadrillategi* egitasmoaren antolatzaileekin jarri ziren harremanetan egitasmoa Atarrabian abian jartzeko.

Lehenengo urteetan koadrila zen euskaldundu nahi zena, baina 2006tik aurrera, koadrilari pisua kendu nahi izan zioten, koadrilak aisialdi egitasmoan ere sortzen baitziren eta koadrilarik ez zuten gaztetxoek ere izena eman zezaketen. Honez gain, Atarrabiako koadrila askotan daude euskaldunak ez diren haur eta gaztetxoak. Honela 2006an *Iseka* (DBHrako, 12-16 urte) eta *Larunblai* (Lehen Hezkuntzako 3., 4., eta 5. mailako ikasleekin, 8, 9 eta 10 urteko haurrak) sortu ziren.

2007an LHko 6. mailako haurrentzat (11 urte) *Jauzi* egitasmoa sortu zen. Honela, 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek euskarazko aisialdi gidatuan parte hartzeko aukera dute.

Iseka Gazte Taldeak bi helburu nagusi ditu:

1. **Linguistikoa:** Aisialdi ekintzen bitartez 12-16 urte bitarteko gaztetxoek arteko euskararen erabilera sustatzea. Testuinguru akademikotik kanpo, gaztetxoak motibatzea euskara egunerokotasunean erabiltzera.
2. **Gazteen garapenari dagokiona:** Gazteen garapen pertsonal eta sozialean laguntzea, beharrezkoak dituzten tresnak eskainiz eta haiengan jarrera aktibo eta kritikoa bat sustatuz.

¹ 2012ko otsailaren 6an

3. ATARRABIA:

Lehenagotik bertan jendea bizi bazen ere, 1184an sortu zuen Antso VI.a erregeak Villava ("Villa noua") izeneko hiribildua, Atarrabia deitzen zen herrixkaren ondoan. Bertakoei, Iruñeko San Nikolas burgu berriko biztanleek zuten foru bera eman zien.

Atarrabiak iparraldean Ezkabarte, ekialdean Uharte, hegoaldean Burlata ea mendebaldean Iruñea ditu eta azalera 1,1 km²koa da.

Eskura ditugun azken datuen arabera, 2011ko urtarrilaren 1ean, 10.487² biztanle zituen Atarrabiak, eta 12 eta 16 urte bitarteko biztanleen banaketa honakoa da.

	Urteak				
	12	13	14	15	16
Emakumezkoak	71	68	72	59	63
Gizonezkoak	54	77	63	60	54
Osotara	125	145	135	119	117

Beraz, Atarrabian 12 eta 16 urte bitarteko 641 haur daude eta Atarrabiako biztanle kopuruan duten pisua %5,85ekoa da.

Atarrabian euskararen erabilera, gehien bat honako **lege eta araudiek** baldintzatzen dute:


- **Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea:** Lege honen arabera Atarrabia eremu mistoan kokatuta dago.
- **Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen udal-ordenantza:** 2011ko urriaren 25ean NAOⁿ argitaratu eta gero 26an sartu zen indarrean. Ordenantza honek euskara eta gaztelera kontsideratzen ditu herriko hizkuntza ofizialak eta hau aipatzen da:

Ordenantza honen helburu orokorra da Udalaren baliabideak lanean jartzea, gizarte elebiduna sustatzeko, Atarrabiako hiritarrei udal zerbitzuak euskaraz emango zaizkiela bermatuz, eta euskararen erabilera areagotzeko esparru sozialak sortuz edota sustatuz.

Atarrabiako biztanleen **hizkuntza gaitasunari** dagokionez, 2001eko erroldan³ Atarrabiako biztanleen %14,1 zen euskalduna, %13,3 ia euskalduna eta %72,6 erdalduna. Herrian haur eta gazte euskaldunen bilakaera positiboa egon zen 2001 arte. Urte horretan haurren %33 eta gazteen %23,6 zen euskalduna. Azpiko grafiko honetan ikus dezakegu bilakaera:

² 2011ko erroldaren errebisioa. Iturria: Espainiako Estatistika Institutua

³ 2001az geroztik ez dugu hizkuntza gaitasunaren inguruko daturik erroldan.



2001eko Kale Neurketaren, Atarrabian, hau da Iruña eskualdean⁴, erabilera %2,8koa izan zen. Haur eta gazteen erabilera azpiko taulan ikus dezakegu.

Urtea	Haurrak	Gazteak
2001	4,5	2,2
1997	3,9	2,1
1993	3,2	1,8

2001ko erroldaren arabera Atarrabiako biztanleen %6,6ren ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelera izan dira. Honela, ehuneko hau konparatzen badugu urte bereko erroldako euskaldun kopuruarekin (%14,1), ikusiko dugu euskara berreskurapen prozesuan dagoela udalerrian.

Atarrabiako biztanleek herriarekiko duten lotura oso handia da, 2009an Taller de Sociología ikerketa enpresak Atarrabiako gazteei buruz egindako ikerketan⁵ modu kualitatiboan zein kuantitatiboan konprobatu zen bezala. Izan ere, gazteek beren integrazio mailari buruz zuten **pertzepzio subjektiboa** neurtu zen, eta %79,1 integratua edo oso integratua sentitzen da herrian. Ikerketaren atal kualitatiboan integrazioa dikotomia moduan azaltzen zela konprobatu zen da, Atarrabia Vs Iruña, Herria Vs Hiria, Lokala Vs Globala.

El situar reiteradamente a Villava-Atarrabia en la perspectiva de lo rural, sentando fronteras sociales que la diferencian de la urbe, no tiene sino el sentido de reforzar el valor identitario que para los jóvenes tiene su pertenencia al municipio. Su habla se construye desde un ejercicio posicional construido de dentro (la comunidad rural idealizada en el arraigo) hacia fuera (la ciudad y todo lo que desarraigo supone). Disyuntiva discursiva que también pudiera explicarse en términos de lo local frente a lo global.

⁴ Herrietan jasotako datuek ez dute adierazgarritasunik, horregatik hartzen dira eskualdeko datuak erreferentziatzat.

⁵ *Juventud en Villava-Atarrabia*. Interneten:

<http://www.villava.es/upload/docs/ESTUDIO%20SOCIOLOGICO.pdf>

Eugenio Lecumberri (2010) soziologo atarrabiarraren *Estudio de hábitos culturales* ikerketan, 316 inkesta burutu ziren adin ezberdinetako atarrabiarren artean, ikerketa horren arabera herriko biztanleen %59k dio gizarte-bizitza⁶ ia beti Atarrabian egiten duela.

Atarrabiako hainbat toponimok demostratzen dute herrian euskaraz mintzatzen zela. Zaila da jakitea noiz galdu zen euskara Atarrabian, baina XIX. mendearen izan zen iturri askoren arabera.

Atarrabiako euskararen egoeran mugarri garrantzitsua izan zen 1970. urtea. Urte horretan sortu zen Paz de Ziganda ikastola, Iruñeko egoitza batzuetan egon ondoren 1974an Atarrabian kokatu zen.

1976an izan ziren gau-eskola sortzeko lehenbiziko mugimenduak, egun IKAk eskaintzen ditu helduentzako euskara ikastaroak herrian.

1980an Atarrabiako Udalak euskarazko lehen ikastetxe publikoa sortu zuen. Hasiera hartan Hiru-Herri izena hartu zuen, gerora, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren esku geratu zen ikastetxea.

Atarrabiako Udalak Euskara Zerbitzua 1988an martxan jarri eta 1989an hasi zen lanean euskara teknikaria. Euskara Zerbitzuak gaur egun martxan jarraitzen du.

Gaur egun, gorago aipatu ditugun hezkuntzako eragileak eta Karrikaluze elkarteak dira, oro har, euskararen normalizazioaren alde propio lan egiten duten eragileak. Hauxe gain, elkarte askotan euskararen erabilerarekiko sentsibilizazioa handiagoa da duela urte edo hamarkada batzuetan zegoenarekin alderatuta.

4. GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA

Ikerketa honen ikergai nagusiak aisialdia, gazteak eta euskara dira. Hori dela eta bakoitza zer den zehaztu nahi dugu ondorengo lerrootan.

- a. **Gazte izatea:** Atal honetako kezka handienetako bat gaztetasuna zer den definitzea da. Gaztetasuna haurtzarora eta heldutasunaren artean dagoen trantsizioa da. Garai hau aldaketa sakonekin hasten da, aldaketa fisiko eta psikologikoak jasaten dituzte eta bolada honetan izaten dituzten ezaugarri esanguratsuenak jarrera errebeldeak eta kritika izaten dira, honez gain, oso ohikoa da lagun berriak egitea. Gazteek helduekiko kultura propio eta ezberdina izaten dute.

Dena dela, Isekako gaztetxoak 12 eta 16 urte bitartean daude, beraz, haietako askok ez dute oraindik beren burua gazte ikusten, beraz, trantsizio garai

⁶ Ikerketa gazteleraz dago, bertan *vida social* terminoa erabiltzen da.

horretara bidean daude, izan ere, oraindik ez dira erabat gazte sentitzen, baina haurrak ere ez. Honela, *ez-leku* batean sentitzen dira, gazte izateko bidean daude eta erreferente ohikoenak gazteen artean dituzte, baina oraindik ez dira gazte taldeen parte sentitzen.

Jarraian, kontzeptuaren inguruko teorizazioa ikusiko dugu ondorengo lerrootan.

Gaztetasunaren kontzeptua hobeki ulertzeko bi autoreren lanak erabiliko ditugu, Carles Feixa eta Jone Miren Hernandez antropologoak, hain zuzen.

Feixak dio gazteria eta horri lotutako hainbat kontzeptu gizarte eraikuntzak direla, kontzeptu hauek XVIII. mendearen erdialdean sortu ziren, industrializazioaren hastapenetako testuinguruan. Dena dela, 1900 urtearen inguruan gizarteko hainbat esparrutan eman ziren aldaketa batzuen ondorioz (eskolan, lan munduan, familiar, soldadutzan...) hasi zen gazteria demokratizatzen.

Hernandez iritzi berekoa da, izan ere gazteriaren kontzeptua ere *gizarte kategoria* bat dela dio eta gogoratzen digu gazteriaren kontzeptua ez dela unibertetsala.

Halere, ezin dugu ahaztu beste gizarte batzuetan gauzak beste modu batean gertatu izan direla (eta gertatzen direla) eta ezberdintasun hauek, hain zuzen ere, nabarmendu dituzte maiz antropologoek.

Hausnarketa honi loturik, Feixak kontzeptuaren iturria mendebaldeko gizarteetan ikusten du, Europan eta Estatu Batuetan. Kontzeptua bera dinamikoa da eta 1900etik aurrera aldaketa sakona izan du Feixak azaldu duen bezala. Aldaketa asko egon diren arren, gazteria kontzeptuak haurtzarotik eta helduaroaren doan zubi bezala ikusi izan da sortu zenetik.

XX. mendearen bukaeran eta XXI.aren hasieran Feixak honela definitzen ditu gazteak:

(...) una juventud marcada por las incertidumbres y las paradojas de la sociedad postmoderna, y por la falta de un sistema de valores sólido. Pero hay otra característica de los jóvenes y las jóvenes de fin de siglo que nos parece más reveladora: su acceso a las nuevas tecnologías de la información y la comunicación, sobre todo su acceso a la red por definición: Internet.

Edonola ere, Feixak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek ere inkomunikazioa sortzen dutela gogoratzen digu.

Pero también surgen nuevas formas de exclusión social que podríamos llamar cibernéticas (...). La red genera comunidades virtuales, pero también nuevas soledades como los hikikomoris, adolescentes japoneses que se encierran en su habitación digital.

- b. **Aisialdia:** Aisialdia edo denbora libre, oro har, lanarekin, ikasketekin edo bestelako eginbeharrekin okupatuta ez dugun denbora da. Aisialdia egungo gizartean oso garrantzitsua den esparrua da, baina are gehiago, gazteentzat K. Berrio-Otxoak, J.M. Hernandezek eta Z. Manzanosek 2001 eta 2002an ikertu zuten gaztetxoan aisialdia⁷, aisialdia gaztetxo hauen garapenean funtsezko esparrua da.

(...) aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrizan bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea.

Gorago aipatu dugun ikerketan AUTONOMIARI garrantzi handia ematen zaio, autonomiaz ari garenean, erabakiak hartzeaz, kontrolaz edo botereaz hitz egiten dugu. Gaztetxoek autonomia duten esparruetan egon nahi dute eta dependentzia duten espazioak ekidin nahi izaten dituzte. Dependentzia helduekikoa izaten da normalean.

Taller de Sociologiak (2009) egindako ikerketan honako ondorio nagusiak atera zituzten:

- Atarrabiako gazteei (15-30 urte bitartekoak) galdetzean aisialdia zertan ematen zuten, honako erantzunak jaso ziren: Gazteek, oro har, *lagunekin* (%67,3) eta *kirola egiten* (%46,7) ematen dute aisialdia. Bi aukera hauek nagusienak badira ere, beste aukera hauek ere agertzen dira (hurrenez hurren): tabernetan egon, musika entzun, bajeran egon, bikotearekin egon, telebista ikusi, zinema eta antzerkera joan. Dena dela, generoaren arabera aldeak nabaritzen dira, emakumezkoek kirol gutxiago egiten dutelako eta kultur gehiago kontsumitzen dutelako. Bereziki deigarria da ZERTAN galdetu zitzaiela, ez NOREKIN, honela Berrio-Otxoa, Hernandez eta Manzanosek (2003) dioten bezala, jarduerak berak garrantzia galtzen du konpainiarekin edo taldearekin alderatuz.

Taldean bilduta, lagunekin hartu-emanen egotea da beraien aisialdian pisu espezifikoko gehien daukana; lagunekin dituzten harremanak funtsezkoak dira gaztetxoentzat. Bestalde, taldea bera aisialdirako espazio bihurtzen da, aisialdirako lekua taldea da, taldeak aukeratu eta osatzen duen lekua.

- Lehengo puntuan ikusi dugun bezala, gazteen ardatza lagunek suposatzen dute eta horrela demostratu zen NOREKIN egoten ziren galdetzean. Dena dela, lagunez gain honako konpainiak agertzen dira: bikotea, Institutuko, ikastolako edo unibertsitateko lagunak, eta familiarekin. Galdera honetako erantzunak ez ziren generoaren arabera banatu.
- Inkestatuen %32,2k daki euskaraz.

⁷ *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Eusko Jaurlaritza, 2003.

- Bajerak *espazio propio eta aske* bezala ikusten dituzte.

Atarrabian gazteek aisialdi-eskaintza zabala dute, hainbat kirol praktikatu daitezke, bi aisialdi-talde daude, bat Karrikaluzerena (Larunblai, Jauzi eta Iseka) eta bestea Scout taldearena (azken hau elizak sustatua eta gazteleraz eskaintzen dena). Udalak 2002an sortu zuen Gaztelekua eta Atarrabiako Gazte Asanbladak zenbait lokal okupatuta izan ditu (lokal horiei guztiei Gaztetxe deitzen zien). 2012ko ekainean, Gazte Asanblada Udalarekin akordio batera heldu da herriko Kultur Etxe zaharra kudeatzeko eta jarduerak antolatzeko. Lokal hauen ezaugarriak nagusia, kudeaketa asanbladan oinarritzen dela da.

Kirol esparruan oso jarduera gutxi antolatzen da euskaraz, eta antolatzen diren horiek ikastetxeek antolatzen dituzte gehienetan.

Esan dezakegu, Atarrabian gazteei zuzendutako euskarazko aisialdi eskaintza oso urria dela, eta ematen dena Karrikaluzek antolatutako jardueren baitan ematen dela gehienetan.

- c. **Euskara:** HIZNET hizkuntza plangintzen gradu-ondokoa den heinean euskarak gune zentrala du ikerketa honetan. Atal honetan bi gai azaldu nahi ditut, lehen, euskaraz ematen den aisialdiak duen garrantzia hizkuntzaren normalizazioan, bigarrena, aldiz, gazteek euskara erabiltzeko eragiten duten faktoreak.

Euskal Herrian hezkuntza izan da euskara berreskuratzeko bitarteko nagusia, are gehiago, Atarrabia bezalako herri erdaldunduetan. Dena dela, D eredu martxan jarri zenetik urteak pasa dira eta hizkuntza gaitasuna gora doa, baina ezin dugu erabileraz gauza bera esan. Erabilera ez da ezagutza igo den modu berean igo. Atarrabia testuinguru horretan kokatzen da.

Soziolinguistikan askotan aipatzen den moduan, hezkuntzak bakarrik ez ditu hizkuntza-portaerak aldatzen. 1991n Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen *Eskola hiztun bila* ikerketan argi geratu zen bezala, haurrek urteak dituen orduen %14 pasatzen dute eskolan. Beraz, familia eta aisialdia dira gaztetxoentzat esparru garrantzitsuak, baina ezin dugu ahaztu gaztetxo hauentzat, familiaren eragina behera egiten ari dela eta lagunaren eragina gora. Izan ere, hauek dira gazteen artean eragiten duten jarduera esparru nagusiak, I. Arrutik⁸ (1997) dioen bezala: lagunartea, familia eta hezkuntza. Honela, gaztetxoaren erabileran eragin nahi badugu hezkuntzaz gain, beste esparru batzutan eragin behar da, honela dio Iñaki Martínez de Lunak⁹ (2006):

(...) Akaso izan den gabeziarik handiena orokortasun falta izan da. Adibide bat, Gasteizen bide-gorriekin gertatu dena: bide-gorriak egin dira espaloi batzuetan, baina kale bukaeran bide-gorria amaitzen da eta ezin da bizikletaz ibili. Hizkuntza batekin, horrenbeste: hizkuntza bat ezin da irakaskuntzan bultzatu eta gero, ezer ez. Edo ibilbide osoa osatzen da edo, bestela, jai dugu.

⁸ Arruti, Iñaki: *Euskararen familia bidezko jarraipena*. BAT Soziolinguistika aldizkaria. 22-23. alea. 1997ko ekaina

⁹ Aipamena *Abian gidaliburua* lanetik hartua. Topagunea, 2006.

Gainera, ezin dugu ahaztu Atarrabia bezalako eremu erdaldunduetan, haur eta gaztetxoek euskaraz egiten duten gauza bakarretako bat ikastea dela, honek suposatzen du euskara inguru akademikora lotzen dutela, formalismoarekin (hezkuntza) lotzen dute, ez informalismoarekin (aisialdia, parekideen arteko erlazioa), eta azken hau oso garrantzitsua da haur eta gaztetxoek errealitatea oso loturik dagoelako esparru horiekin.

Gazteek euskara erabiltzeko eragiten duten faktoreak aztertuko ditugu ondorengo lerrootan. Soziolinguistika Klusterrak, Topaguneak eta Urtxintzak 2009an egindako *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak* argitaratu zuten. Izenburuak oso argi uzten du ikerketaren helburua. Ikerketa honetan erabileran baldintzatzen zuten faktoreak hiru multzotan sailkatu zituzten:

- **Maila indibiduala:** Maila honetan eragiten duten faktore nagusiak hauexek dira:
 - Haurtzaroko hizkuntza ingurunea: Familiako, eskolako eta auzoko hizkuntza errealitateak.
 - Jarrerak eta portaerak: lotsa, harrotasuna, koherentzia-nahia, axolagabetasuna...
 - Identitate kolektiboak: Kidetasun sentimenduak hauekiko:
 - Ingurukoekiko: Familia, lagunak, inguruko taldeak
 - Herria, eskualdea, lurraldea, nazioa, kultura.
 - Euskal hiztunen taldearekiko.
 - Hizkuntza gaitasuna: Norberaren gaitasuna, komunikaziorako erosotasuna, euskalkian aritzeko gaitasuna...
- **Maila mikrosoziala:**
 - Ingurune hurbileko pertsona eta taldeen jokaera hizkuntzarekiko (familia, irakasleak, herriko gazteak...)
 - Harreman sareetako hizkuntza arau eta ohiturak:
 - Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: Hiztunen eta hizkuntzaren irudia (balio sinbolikoa edo instrumentala).
 - Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa.
 - Inguruko hizkuntza gaitasuna
- **Maila makrosoziala:**
 - Pertsona eta talde erreferenteak: gizartean erreferente diren famatu, prestigidun eta abarrekoen jarrera eta portaerak.
 - Kontsumo eskaintza: Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eskaintza.
 - Input mediatikoak: Publizitatea, marketina, hedabideak, kultur kontsumoa, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, moda...
 - Testuinguru politikoak: Legeak, instituzioek hizkuntzarekiko duten jarrera, beste erakunde batzuen jokaera (alderdi politikoak, gizarte mugimenduak, elkarteak...).

5. ISEKA GAZTE TALDEA:

Horago aipatu dugun bezala, Isekak antolatutako aisialdiaren bitartez, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek hizkuntza ohituretan eragiteko helburua du.

Isekaren iturburua Kuadrillategi egitasmoan dago, egitasmo hau 1991n hasi zen mamitzen Peio Jauregi doktorearen tesiaren bitartez. Hastapenetako teknika eta metodologiak doitu eta gero Lasarte-Orian jarri zen egitasmoa martxan, egitasmoko parte-hartzaileen adina jaitsiz, 13 eta 14 urteko gazteen artean hasi zen aplikatzen eta 2002an Atarrabiara heldu zen Karrikaluzeko euskaldunon elkarteko sortzaileei esker.

Kuadrillategik berezko taldeak ditu oinarri eta talde hauetako hizkuntza portaeren atzean taldeak berak ezarritako arauak daudela diote egitasmoko arduradunek, eta ondorioz taldeko araua aldatu gabe ezin izanen da kide bakoitzaren hizkuntza portaera aldatu.

2005ean, ordea, Atarrabiako Kuadrillategiko begiraleek eta Karrikaluzeko zuzendaritza taldeak erabaki zuten egitasmoan aldaketa batzuk sartzeko eta Kuadrillategi Atarrabiako errealitatera moldatzea. Izan ere, Atarrabiako talde natural (koadrila) asko euskaldunez eta erdaldunez osatuak zeuden eta gainera adin horietan aldaketa asko sortzen dira koadriletan. Hori dela eta, talde naturalei edo koadrilei pisua kendu zitzaienten eta izena norbanakoak ematen hasi ziren, ez koadrilak. Honela, 2006an sortu ziren *Larunblai* (8-10 urte) eta *Iseka* (12-16 urte), 2007an *Jauzi* (11 urte) sortu zen ibilbidea osatzeko.

Isekako proiektuan, 2005ean idatzia, honakoa irakur dezakegu:

Egitasmo honek taldeak eta pertsonak hartzen ditu kontuan, gazteei zuzenduta dago eta eskaintza aisialdian kokatzen da, ongi pasatzeko era askotako ekintzak eskainiz. (...) prozesu honetan honako bi helburu orokor lortu nahi ditugu:

Iseka proiektuari bi helburu nagusi ezarri zizkioten:

1. **Linguistikoa:** Aisialdi ekintzen bitartez 12-18¹⁰ urte bitarteko Koadrilen arteko euskararen erabilpena sustatzea. Egitasmo honen bitartez, gazteak euskara egunerokotasunean erabiltzera motibatu nahi dira. Gazteei tresnak eman nahi zaizkie euskara eguneroko zereginetan erabiltzeko, tresna hauek gazte hizkera eta kalitatea (eta batez ere egokitasuna¹¹) dira, batez ere.
2. **Gazteen heziketa:** Gazteen heziketa pertsonal eta sozialean ere egin nahi da interbentzioa, gazteengan jarrera aktibo eta kritiko bat

¹⁰ Hasiera batean 18 urte arteko gaztetxoekin ere egin nahi zen esku-hartzea, baina azkenean 16 urtetan geratu zen parte hartzaileen gehienezko adina.

¹¹ Egokitasun bezala Euskararen Kalitatea liburuan definitzen duten bezala ulertzen dut: *Bere xederako egokia dena da euskara egokia (...) hizkuntzaren xedea eragitea da batez ere. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia.*

sustatzen da. Atal honi begira, heziketako esparru hauetan eragin nahi dute nagusiki:

- Tolerantzia, berdintasuna, konpromisoa, parte hartzea bezalako baloreak transmititzea.
- Kideen arteko erlazio egokiak emateko ekintzak egin eta bide batez, talde batekiko parte hartze sentimendua garatu.
- Bere aisialdia antolatzerakoan gazteen auto antolakuntza eta autonomia sustatu.
- Ahal den neurrian gazteen nahiak eta interesak biltzen dituen ekintzak egin.
- Gazteek euren aisialdia antolatzeko tresnak eta baliabideak erakutsi.
- Sexualitatea, drogen kontsumoa, kontsumismoa, ingurugiroa eta halako gaien inguruan informazioa eman eta prebentzioa landu.

Isekak (eta Kuadrillategik) hamar urte hauetan honako bilakaera izan dute parte-hartzaile kopuruari dagokionez. Ikus dezakegu kopuru nahiko egonkorrak izan dituela egitasmoak.

Ikasturtea	Partaide kopurua
2002-2003*	27
2003-2004*	21
2004-2005*	
2005-2006* ¹²	
2006-2007	24
2007-2008	27
2008-2009	38
2009-2010	33
2010-2011	33
2011-2012	34

* Kuadrillategiko datuak dira

6. IKERGAIA:

Aurreko marko teorikoa azaldu eta gero, ikergaia eta horren barruan dauden azpi-ikergaiak zehaztuko ditugu.

Ikerketa honetan, Atarrabiako Iseka Gazte Taldea aztertu nahi dut, bertan azpi-ikergai hauek agertzen dira, Atarrabia, gazteak, gazteen aisialdia eta euskararen erabilera eta euskararekiko motibazioa gazteen artean.

¹² 2011ko urtarrilean Guardia Zibilak egindako miaketa baten ondorioz ez dago datu fidagarrik bi ikasturte haietako partaide kopuruari buruz.

7. UNIBERTSOA:

Ikergaian gazteak aipatu ditugu, baina gehiago zehaztuz, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxo euskaldunak aukeratuko ditugu, baina ezaugarri hauek betetzen badituzte:

- Momentu honetan Isekan parte hartzen dauden gaztetxoak.
- Noizbait Isekan, Larunblain edo Jauzin parte hartu dutenak, baina egun parte hartzen ez dutenak .
- Inoiz Isekan, Larunblain edo Jauzin parte hartu ez dutenak .

8. HELBURUAK

Ikergaia eta unibertsoa zehaztu ondoren, ikerketa honen bitartez zer lortu nahi dugun definituko dugu, alegia, helburuak zehaztuko ditugu, batetik helburu orokorra eta bestetik helburu orokor hori betetzeari begira ateratzen zaizkigun helburu espezifikoak.

Helburu orokorra

Ikerketa honen bitartez, Atarrabian gazte izateak zer esan nahi duen, gaztetxo euskaldunek zer nolako aisialdia duten eta orokorrean zer nolako errealitatea duten ezagutu nahi dut. Honen bitartez, gaztetxoen hizkuntza errealitatera hurbildu nahi dut eta behin errealitate horretara hurbilduta, ondorio batzuk ateratzen saiatuko naiz, jakiteko zein aspektutan eragin daitekeen euskararekiko motibazioa eta erabilera hazteko.

Helburu espezifikoak:

- Isekako gaztetxoak egitasmoan parte hartzeko dituzten **motibazioak** identifikatu.
- Isekako gazteek parte hartzen dutenean dituzten **bizipenak** aztertu.
- Isekako parte hartzaileen harremanak, haien artean eta begiraleekin.
- Gaztetxoek egitasmoari buruz duten **iritzia** jaso
- Esku-hartzeak **gaztetxoengan duen eragina** ezagutu:
 - euskararekiko **motibazioan**
 - euskararen **erabileran**.
- Parte hartzen **ez dutenen arrazoiak** ezagutu.
 - Noizbait parte hartu dutenak
 - Inoiz parte hartu ez dutenak
- Atarrabiako gaztetxoen (orokorrean) aisialdia ezagutzea
- Isekako gaztetxoen **aisialdia ezagutu**: non, zertan eta norekin (jarduerak, harremanak eta espazioak).
- Isekako gaztetxoek Karrikaluze elkarteari buruz duten iritzia jakin.

9. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA:

Ikerketako helburuak bete ahal izateko erabiliko ditugun teknikak metodologia **kualitatiboaren** baitan egingen dira.

Gaztetxo hauen irudikapenak, iritziak, jarrerak, pertzepzioak ulertzeko beharrezkoa dugu metodologia kualitatiboa. Honen arabera, ekintza sozial bat aztertzeke, barne dimentsioen adierazpenak hartu behar dira kontuan. Barne dimentsio honetan ideiak, baloreak, sinismenak edo pentsamenduak barneratzeko eta sortzeko gaitasun sinbolikoa daude. Beraz, portaera sozial baten barneko esanahi eta zentzua ulertu nahi badugu, gizakiok hizkuntzaren bitartez garatzen dugun dimentsio sinboliko horri begiratu beharko diogu

Ikuspegi honek honako ezaugarriak ditu:

- Pertsonak sortzen dute errealitate soziala; ezinbestekoa da, beraz, pertsonen ikusmoldeak eta pentsamoldeak kontuan hartzea.
- Portaera sozialaren barne dimentsio sinboliko horrekin, gizakiok, zentzua ematen diegu geure ekintzei, besteen ekintzei eta bizi dugun errealitateari.
- Giza portaera ingurune sozialaren barruan ulertu behar da, ingurune bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz.
- Gizarte-zientzietan ezinezkoa da gertaerak azaltzea natura-zientzietan azaltzen diren moduan. Lege orokorrak eta unibertsalak ezinezkoak dira errealitate sozialaren azterketan.
- Azaltzea baino **ulertzea** da giza zientzien helburua: enpatia bidez ulertzea gizakiok geure ekintzei eta gure ingurune sozialari ematen diegun zentzua.

Beraz, errealitate soziala gertaerek eta gertaera horiei ematen zaien zentzuak osatzen dute. Biak dira osagarriak, errealitatea ezin da bakarrik horietako batekin ulertu. Gertaerei ematen zaien zentzua jakin ahal izateko diskurtsoen azterketaz baliatuko gara. Diskurtsoak lortzeko honako teknikak erabiliko ditugu:

1. Hiruko talde fokala:

Hiruko taldeak, izenak argi dion moduan, elkarrizketa hiru pertsonari egiten zaie elkarrekin. Teknika honekin ateratzen diren diskurtsoak eztabaida taldeen (beherago azalduko ditugu) *gu* eta elkarrizketa pertsonalen *ni*-aren arteko tentsioan daude. Z. Martinezek (2002) dion moduan:

Hortaz, hiruko taldeetan diskurtsoaren adierazpen ez da ehunetik ehunean talde-adierazpena, ezta ere adierazpen pertsonala, baizik eta batetik bestera etengabeko mugimenduan eta trantsizioan dagoen adierazpen mistoa.

Osoz 5 egin dira, beraz Isekan parte hartzen dauden 15 lagun elkarrizketatu ditugu. 12, 13 eta 14 urteko 2 hirukote eta 15 eta 16 urteko 3 hirukote sortu ditugu (hiruko elkarrizketa eta eztabaida taldeen osaketari buruzko informazio gehiago, 10. atalean Landa lana atalean).

Isekako gaztetxoekin teknika hau erabili dut. Teknika honen bitartez honako helburuak lortu nahi ditugu:

- Isekako gaztetxoen aisialdia ezagutu: non, zertan eta norekin (jarduerak, harremanak eta espazioak).
- Gaztetxoek egitasmoari buruz duten iritzia jaso.
- Isekako gazteek parte hartzen dutenean dituzten bizipenak aztertu.
- Isekako gaztetxoek egitasmoan parte hartzeko dituzten motibazioak identifikatu
- Esku-hartzeak gaztetxoengan duen eragina ezagutu:
 - euskararekiko motibazioan
 - euskararen erabileran.
- Isekako parte hartzaileen harremanak, haien artean eta begiraleekin.
- Isekako gaztetxoek Karrikaluze elkarteari buruz duten iritzia jakin.

2. Eztabaida taldeak

Eztabaida taldearen diskurtsoa talde-diskurtsoa da, diskurtsoaren sortzailea taldea bera da (*gu*) ez norbanakoa. Jesus Ibañezek teknika honen ikuspegi teorikoa eta praktikoa sakon landu ditu. Eztabaida taldea, Ibañezen iritziz “*erreferentzia bezala hartzen den makrotaldearen mikrotaldea da*, taldeak ez dira naturalak, eztabaida talderako propio sortutako taldeak dira, eta bertan, gizarteko sektore horretan dauden iritzi ezberdinak agertuko dira.

Taldearen tamaina gutxienez 5 eta gehienez 10 lagunekoa da eta taldekideen arteko harremanak simetrikoak izan behar dira

Bi eginen dira. Partaideak ez dira Isekan parte hartzen egongo. Talde bat Isekan, Larunblai edo Jauzin parte hartu izan dutenekin eta bestea aipatu ditugun egitasmoetan inoiz parte hartu ez dutenekin.

Teknika honekin honako helburuak bete nahi dira:

- Parte hartzen **ez dutenen arrazoiak** ezagutu eta ulertu
 - Noizbait parte hartu dutenen arrazoiak ezagutu eta ulertu
- Atarrabiako gaztetxoen aisialdia ezagutzea non, zertan eta norekin (jarduerak, harremanak eta espazioak).

10. KANPO LANA

Helburuak bete ahal izateko bi teknika erabili nahi nituen, hiruko taldeak eta eztabaida taldeak. Hiruko taldeak egitea lortu nuen ISEKAKo koordinatzaile eta begiraleen lan paregabeari esker, baina eztabaida taldeak ezin izan genituen egin. Eztabaida talde bat lotuta geneukala ez ziren bi gaztetxo besterik bertaratu eta ez nituen lortu bilatzen ziren helburuak, beraz, ikerketan ez dugu eztabaida-talde saiakera hori erabiliko. Eztabaida taldeak beranduegi planteatu nituen eta ekaina oso hilabete txarra da horrelako dinamika bat antolatzeko gaztetxoekin.

Hortaz, eztabaida taldeen bitartez lortu nahi genuen informazioa lortzea ezinezkoa izan da eta honako helburuak ezin izanen ditut lortu:

- Parte hartzen **ez dutenen arrazoiak** ezagutu eta ulertu.
 - Noizbait parte hartu dutenen arrazoiak ezagutu eta ulertu
- Atarrabiako gaztetxoek aisialdia ezagutzea non, zertan eta norekin (jarduerak, harremanak eta espazioak).

5 hiruko talde egin ditut Isekan 2012ko maiatzean zehar. Hiruko taldeak gaztetxoek nahi izan zuten moduan antolatu ziren. 3 talde 15 eta 16 urtekoekin egin ziren eta beste biak 12 eta 14 urte bitartekoekin. 5 taldeak horrelakoak izan ziren:

- Lehen hiruko talde hau hiru neskek osatua izan zen, denak burlatarrak eta 15 eta 16 urtekoak
- Bigarren taldea ere neskez osatua eta Atarrabia, Burlata eta Iruñeko Txantrea auzokoak, hauek ere 15 eta 16 urte zituzten.
- Hirugarren taldean mutilak izan genituen, hauek 12 eta 13 urte zituzten eta Atarrabiako biztanleak ziren.
- Laugarren taldea Atarrabiako 3 neskek osatu zuten, denek 15 eta 16 urtekoak.
- Bosgarren eta azken taldea 13 eta 14 urteko neskek osatu zuten, bi burlatar eta Olaztar batek.

Esan behar da, gaztetxoak baino zaharragoa naizela eta horrek zenbait talderen funtzionamendua baldintzatu zuela. Hori bai, beste talde batzuk askoz ere hobeto atera ziren eta gaztetxoak inongo lotsarik gabe mintzatu ziren.

Jarraian, gaztetxoei egindako elkarrizketak aztertu eta gero, honakoa informazioa jaso dut:

Gazte izatea:

Elkarrizketetan, esplizituki edo inplizituki, askotan atera da, haur izatetik gazte izatera pasatzen ari direnaren sentimendua. Momentu honetan trantsizioan daude eta beren burua ez dute inon ikusten, ez haurrekin ezta gazteekin ere. Haien zat propio prestatutako aisialdi jarduerak gutxi izaten dituztela diote, jarduerak helduagoentzat edo gazteagoentzat direla sentitzen dute.

Ez zara de los hinchables, baina oraindik ez zara de los kontzertus... te quedas ahí en el medio. (15 urte, neska. Burlata).

Atarrabia:

Egin diren 5 elkarrizketetan, Atarrabia herri dinamiko bezala definitu dute Isekan parte hartzen duten gaztetxoek, giro ona topatzen dute bertan eta haien iritziz herri izaera mantentzen du, herritarrek elkar ezagutzen dutelako. Adierazgarria da ISEKAko gazteenek (12-14 urte), bai atarrabiarrak, bai Atarrabiatik kanpo bizi direnak jarduerak eta zerbitzu eskaintza zabala dagoela esatea:

Iruditzen zait herri txikia, baina oso ongi antolatua, porque dago guztietatik (denetik), eta gero ere... pues... ezagutzen gara, kalean ikusteagatik, ikastolatik, edo edozein gauzagatik.

-Gainera, hemen egiten dira guretzat ekintza gehiago eta Burlatan ikusten duzu eta ez dago inoiz ezer.

-Nik uste dut Atarrabia dela mugituagoa eta alaiagoa.

Isekan parte hartzen duten nagusienak (15-16 urte), ordea, ez dira iritzi berekoak eta monotonia zantzuak antzematen dira Atarrabiako ohiko aisialdiaz hitz egiten dutenean, iritzi hau aldatzen da jaiez, Atarrabiako Egunaz edo EuskaldunON¹³ Asteaz hitz egiten dutenean.

Isekako gaztetxoen aisialdia:

Gaztetxo hauen aisialdia zein den aztertu aurretik egokia da argitzea haientzat zer den aisialdia. Elkarriketetan parte hartu duten guztien iritzia, bera da, aisialdia **klaserik ez duten denbora** da, baina aisialdi maila ezberdinak sailkatzen dituzte denek, sailkapenaren ardatza AUTONOMIA da, hau da, gaztetxoek nahi dutena egiten dutenean, zertan, non eta norekin egon erabakitzen dutenean, hori da aisialdiaren mailarik gorena. Maila honen azpian bi azpi-maila kokatzen dituzte, azpi-maila hauek sortzen dituzte bi ardatzen inguruan, KONPROMISOA eta DIZIPLINA. Tarteko aisialdi honetan **kirola** kokatzen dute, konpromiso eta diziplina maila minimo bat eskatzen die gaztetxoei. Azpiko mailan, ordea, **musika edo ingelera ikasketak** kokatzen dituzte. Musika ikasketetan aurrez aurreko klase-ordu pertsonalak egoten dira, irakaslea eta ikaslea bakarrik daude, beraz, ezin dute faltatu klase horietara.

-Niretzat da aisialdi gehiago kirola musika baino, ze musikan badago egutegi bat eta joan behar zara klasera zure orduetan eta... eta , pues, kirolean da pixka bat libreago.

-Eta egiten duzu zuk nahi duzulako... da como más... ez dakit nola azaldu.

-Kontrolatuagoa.

-Eso, ... daude irakasleak porque ez da berdina entrenatzaile bat edo irakasle bat.

-Eta egiten ditugu azterketak

Honela, Isekako gaztetxoen ustez aisialdia autonomia duten momentua da, baina autonomia maila hori ez denean erabatekoa, beste bi aldagai sartzen dira jokoan, KONPROMISOA eta DIZIPLINA. Hau da, jarduera batek ez dienean eskatzen konpromiso eta diziplina gehiegi, aisialdiaren sailkapen sinboliko horretan goiko mailan kokatzen dira jarduerak.

Autonomia gehien ematen dien aisialdia asteburuetan ematen da, batez ere, ostiral arratsaldean eta larunbatean. Asteaz zehar gehienek izaten dituzte eskolaz

¹³ EuskaldunON Astea Karrikaluze elkarteak antolatzen du, 2011n egin zen lehen edizioa eta bazkari herrikoa, Isekako gaztetxo batzuen emanaldi musikala eta rock kontzertu bat antolatu ziren.

kanpoko jarduerak eta ikastetxeko lanak. Honez gain, azterketak ere prestatu ohi dituzte.

Gaztetxoen aisialdiaren inguruan hiru ikergai markatu ditugu, gaztetxoek dituzten harremanak, zein jarduera egiten dituzte eta zein espaziotan egoten diren, hau da, norekin egoten diren, non eta zer egiten.

Harremanei ematen zaien garrantzia jarduera eta espazioei ematen zaiena baino askoz ere handiagoa da. Gaztetxoentzat funtsezkoa da konpainia onean egotea eta ez du horrenbesteko garrantzirik zertan aritzen diren edo non. Konpainia hau koadrila da, koadrila hau adina, bizileku eta ikasketen arabera sortzen den PARE - TALDE bat da. Pare-talde hauek sozializazio agenteak dira eta eskola, familia edo hedabideek duten funtzio sozializatzaile bera dute. Gainera, adin tarte honetan gero eta garrantzi gehiago irabazten ari da gainerako instituzio sozializatzaileekin alderatuz, esaterako familia edo hedabideak.

Gaztetxoei zertan eta non zebiltzan galdetzerakoan, lagunekin egoten zirela erantzun zuten, hau da, egiten dituztenei eta egoten ziren espazioei nolabaiteko garrantzia kendu zioten eta zituzten harremanei eman zieten zentraltasuna. Honela, taldea bera aisialdirako espazio bihurtzen da.

Nahiz eta koadrila gaztetxo hauen harremanen ardatza izan, ez dute ikusten zer bait itxia bezala, koadrilatik kanpo ere hainbat lagun eta ezagun dituzte.

*-Da, nola, duzu zure koadrila eta gero ya dituzu lagunak.
-Bai, daude ezagunak, lagunak eta koadrilakoak.*

Gorago aipatu dugun bezala, Isekako nagusien artean (15-16 urte) aisialdiaz hitz egitean, monotonia zantzuak antzeman ditugu haien hitzetan eta hori konpontzeko, aisialdirako espazio propio baten beharra ikusten dute.

Es que dago adin bat jendeak nahi duela bajera bat, es que behar duzu leku bat, zeren bestela ez duzu leku bat... kalean.

Zure gurasoentzat zara oso txikia, baina gero... ez duzu egin behar umeei egiten dituzten gauzak, pues estás ahí como que ez dakizu zer egin.. pues sí, sentada en un banco, baina es que....

Gaztetxoek elkartzeko espazio propioen faltan, eguraldi ona eginez gero, espazio publikoa erabiltzen dute, kalean, parkeetan... egoten dira. Zein jarduerak egiten zituzten galdetu zitzaientean, denetik erantzun zuten, kirola egin, banku batean egon, hitz egin, paseatu, zentro komertzialetan egon (zineman, joko-aretoetan)... Eguraldi txarra egiten duenean, aldiz, lagun baten etxean egoten dira pelikulak eta telesailak ikusten edo bideo-jokoetan jolasten.

Etxean denbora libre pixka bat dutenean, ordea, telebista ikusten eta ordenagailua erabiltzen egoten dira. Ordenagailua gehien bat lagunekin komunikatzeko eta musika entzuteko erabiltzen dute. Komunikazioa gehienetan TUENTI sare sozialaren bidez ematen da eta batez ere inguruko lagunekin, baina Iruñeritik

kanpokoak diren lagunekin ere komunikazioa mantentzen dute, esaterako Olaztiko Isekako partaideekin.

Iseka: Gaztetxoek duten iritzia, bizipenak eta parte hartzeko motibazioa

Isekako partaideen bizipenak egitasmoan parte hartzen dutenean oso positiboak dira. Esperientzia dibertigarria iruditzen zaie eta oso giro ona aurkitzen dute. Egitasmoan egiten dituzten jarduera askok Isekatik kanpo egiteak lotsa emango lieke, baina Isekan bizi duten esperientzia positiboak lotsa hori kentzen die.

Eta zer egiten da Isekan? (Ikerlaria)

- Jolasak, eztabaidak, kanpaldiak...

- Locuras! (Barreak)

Edonola ere, oso argi ikusten dute egitasmoaren atzean ez dagoela soilik asmo ludikoa, beste asmo hezitzaile batzuk ere ikusten dituzte, esaterako sexualitatea, drogen kontsumoa, kontsumismoa, ingurugiroa eta halako gaien inguruan informazioa ematen zaie eta prebentzioa lantzen da. Oso harrera ona izaten dute.

Egiten dituzu jolasak, tailerrak eta horrela, baina beti daude erlazionatuta zerbaitekin... eta nola nahi dute zuk zerbaiti bueltak ematea ez?, nola esan... ostra pues egia da, inoiz ez zara konturatu edo inoiz ez zara geratu bi segundo baino gehiago pentsatzen gauza horietan.

- (...) jolas batzuk direla, pues en plan esaten dutela: buah eso es para niños eta ez dakit zer, baina gero esplikatzen dizute nahi zutena egin eta orduan esaten duzu: ah!, pues bai.

- Da nola lekzio bat emateko.

-Bai, baina oso modu librean.... ezberdinean.

Ezagutzen dituzten bestelako jarduera eta ohiturekiko **ezberdin** ikusten dute Iseka. Ohitura eta jarduera horiek eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdi librea dira. Bereziki aipagarria iruditzen zait, koadrila itxiak suposatzen duen egoera estatikoaren kontrakotzat ikusten dutela ISEKA.

Gu, adibidez, gaude koadrilako batzuk, baina ez gaude multzo batean bakarrik, eta besteak bakarrik jolasetan. Pues ez, bakoitza doa ere bere aldetik (...)

O sea, ahal zara egon txikiagoa den batekin eta egon taldeka hitz egiten eta horrela, agian hortik kanpo ba gehiago zure koadrilakoekin, baina hor barruan, ez dakit.... Sartzen zara gela horretan eta da nola... desberdina.

Isekan parte hartzearen arrazoiak anitzak dira, ongi pasatzen dute, lagun berriak egiten dituzte eta **egitasmo fresko eta lotsagabea** iruditzen zaie, hau argi eta garbi geratu da egin diren bost elkarrizketetan. Lotsagabetasun horrek ISEKAN konplexurik gabe jokatzera bultzatzen ditu gaztetxoak, konplexu hauek kenduta haien benetako izaera erakusteko aukera ematen die.

- Egoten zara, nola gustora eta pasatzen da denbora azkar, da nola deskonektatzea.

- Eta baita izan ahal zarela zu, zu eta zu. Hombre kuadrilan zaudenean ere zara zu, baina beste momentu batzuetan...

-Klasean zaudenean...

- O sea, ezin dituzu egin horrelako bromak, porque jendea dago que se lo toma ahi a malas eta horrela, y se quedan pixka bat... o sea, gorde behar duzu... Broma batzuk esaten dizutela, tu que infantil eres no? Edo horrelako zerbait, buah, zaude erotua? Zer sartu duzu? Ba horrelako gauzak ISEKAn egiten dituzu eta pasatzen da nola desapercebido.

DENEK BARRE

Talde guztietan aipatu da, ISEKAko begiraleak ikastetxeetako patioetara joatea ISEKA ezagutzeko modu ohikoenetako bat dela, baina anai-arreba helduenek parte hartu izana, edo lagunengomendioek asko markatzen dute parte-hartzea. Inork ez du aipatu kartelak eta esku-orriak ikusi dituenik, azkenik talde bakar batean agertu zen irakaslearen gomendioa izan zela.

Honez gain, talde bateko hiru partaidek oso ongi baloratu zuten Karrikaluzeko aisialdi egitasmoetatik joaldun talde bat sortu izana. Haiei eskainitako aukera bezala ikusi zuten hirurek.

-Atarrabiako talderik onena denbora pasatzeko... gero ere Isekarekin gu hiru gara zanpantzar taldekoak eta hori egin genuen Isekarengatik...

-Ez Jauzi

-Ematen dituzte oportunitate asko.

Isekaren baitan sortzen diren harremanak:

ISEKari buruz duten iritzi onaren arrazoi nagusiena harremanetan dago, parte-hartzaileen artean dagoena eta begiraleekin dutena.

Haien artean oso harreman ona dutela esan dute guztiek, normala den bezala, batzuekin besteekin baino hobea, baina haien arteko harremanetan errespetu eta enpatia handia nabari da. Talde izaera handia erakutsi dute partaide guztiek. Gainera haietako batzuk koadrila izatera pasa dira.

(Partaideen arteko harremanak) -dira super libreak, ez dakit, nola, bazilatzen zara...

-Eta norbaitekin ez bazaude gustora, ba ez zara egon behar berarekin, o sea, ni nago gustora guztiekin, baina ez zaude obligatua egotea inorekin.... O sea, ematen du dela talde bat, egon behar duzula guztiok guztiokin, (...) ez baduzu aguantatzen aguantatu behar duzula eta ya esta... eta ez... da otro ambiente diferente.

-Batzuekin duzu harreman gehiago eta besteekin gutxiago, baina guztiakin duzu konfiantza pixka bat eta bromak eta horrela egiten dituzu.

Begiraleekin duten harremana oso hurbila eta konfiantzazkoa da, hori da ISEKAko giro onaren gako garrantzitsuenetako bat. Nahiz eta begiraleek saioetan boterea eta autoritatea duten, gaztetxoek ez dituzte autoritate bezala ikusten, **ERREFERENTE** ikusten dituzte. Gaztetxoek autoritatea irakasle eta gurasoekin identifikatzen dute, ez begiraleekin. ISEKAko partaideek egitasmoa freskoa, lotsagabea eta dibertigarria ikusteko arrazoi nagusia begiraleek saioetan erakusten duten izaeran dago. Gaztetxoek begiraleek haien artean duten harreman ona ere oso ongi baloratzen dute. Bereziki aipagarria da, boterea erabiltzen duten momentuak ere oso ongi hartzen dituztela gaztetxoek.

ISEKAko gaztetxoek erakusten duten talde izaeraren arrazoietako bat begiraleen jarreraren ikusten da. Begiraleak dira taldeko pieza ezberdinak lotzeko behar den porlana.

*- Dira nola gure adineko beste batzuk.
- Transmititzen dizute poztasuna*

-Egiten dituzte gauzak gu ongi egoteko, ongi pasatzeko... egiten dute ahalegina denak ongi pasatzeko eta ez geratzeko inor bakarrik.

-Irakasten digute asko bizitzari buruz, ez matematika edo historia.

-Gero ere badute, su momento de seriotasuna... Benga isildu pixka bat hitz egin behar duela norbaitek... baina dira super irekiak.

Gorago aipatu dugun moduan, ikastetxera mozorrotuta joatean, begiraleek nolabaiteko hasierako zilegitasun bat irabazten dute autoritate baten aurrean, kasu honetan ikastetxea. Hori da antzematen den lehen urratsa, denek gogoratzen dute irribarre artean, eta *están grillaus, dira la leche, egiten dituzte txorradak*, eta antzerako esamoldeak erabili dituzte guztiak behin eta berriro begiraleei buruz hitz egiterakoan.

Esku-hartzeak euskararen erabileran eta motibazioan duen eragina:

Arestian aipatu dugun moduan, gaztetxoek hauek ISEKAz gain euskaraz egiten duten gauza bakarretako bat ikastea da, gehienez ere, dantzan dabilzan haietako batzuk bertan ere euskaraz aritzen direla esaten dute, baina gainerako gehiena gaztelaraz egiten dute. Kontuan hartu behar dugu Atarrabiako gaztetxo gehien gurasoak ez direla euskal hiztunak, eta Atarrabian (eta oro har Iruñerrian) gaztetxoen artean oso gutxi hitz egiten dela euskaraz. Beraz, esan dezakegu gaztetxo hauen ingurunean gehienetan gaztelera erabiltzen dela.

Gogoratu behar da ISEKAN ez dutela koadrila osoek parte hartzen, beraz, gaztetxoak ISEKA bukatutakoan *benetako mundura* bueltatu behar dira. Izan ere,

koadrilan edo hurbileko ezagunengan dagoen araua gazteleraz hitz egitea da, eta arau edo ohitura hori apurtzea oso zaila gertatzen zaie.

Lagunekin zuk nahi duzu hitz egin, baina beraiek ez, hori joditzen zait pila bat, putada bat da

Dena dela, denek aipatzen dute ISEKAko saien ondoren edo asteburuko edo udako kanpaldien ondoren saiatzen direla euskaraz aritzen, baina *kanpoko* norbait sartzen denean, ahal duen lehendabiziko aukeran gaztelera sartzen du elkarrizketan eta elkarrizketako hizkuntza aldatzen da.

Iaz joan ginenean udan kanpaldiz, bueltatu ginen eta bi aste dena euskaraz, baina badator norbait oportetatik ez dakiena eta hasten zara hitz egiten erdaraz, eta hala todo a la mierda!

Haietako batzuk euskaraz aritzeko erregistro informalean gaitasunik ez dutela aitortu dute eta zaila egiten zaie zerbait adierazteko euskara erabiltzea eta horretarako *euskañola* (euskara eta gaztelararen arteko nahasketa) edo gaztelera erabiltzen dute. *Euskañola* edo gaztelera erabiltzean askoz ere libreago sentitzen dira, nahi dutena nahi duten moduan adieraz dezakete. Gaztetxo hauek ez dute gazte-hizkera adierazgarririk eta erabiltzen dutena batua da, hizkuntza formala, normalean autoritate batek erakutsia, kasu honetan eskolak.

Gazteen artean sortu da nola jerga bat, como en plan primo, no sé que, tio, olé chocho, o sea, dira denak gaztelaniaz, ez dira existitzen euskaraz jerga bat, nola zer mutiko (...).

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzerakoan, esaterako sakelako telefonoetako mezuak edo sare sozialen bitartez bidaltzen dituzten mezuetan askoz ere gehiagotan aritzen dira euskaraz, aurrez aurreko elkarrizketetan baino.

Lehenago aipatu dugun bezala, gaztetxo hauek euskararekin duten harreman bakarra ikastetxean, dantzan eta ISEKAN dago. Jasotzen duten beste estimulu gozagarri bakarretako bat euskaraz kantatua den musika da, eta literatura, nahiz eta azken hau ez den horren aipatua. Beste modu batera esanda, gaztetxoei euskarak eskaintzen dien estimulu gozagarri bakarretakoak honakoak dira: ISEKA, dantza, musika eta literatura.

Elkarrizketatuak ISEKAN hasi zirenetik, oro har, euskaraz gehiagotan aritzen direla aitortu zuten.

Gorago aipatu ditugu ISEKAK erabileran duen eragina, baina ikerketako beste helburu bat motibazioan duen eragina aztertzea da. Euskararekiko motibazioa, hizkuntza horretan hitz egiteko ditugun arrazoiak, desioak edo interesak dira.

ISEKAko gaztetxo hauek euskara bere hizkuntza dela sentitzen dute, txikitatik hitz egiten dutena eta *hemengo hizkuntza*. Harro daude euskal hiztunak direlako, pribilegiatuak sentitzen dira eta haietako batzuk aipatu dutenaren arabera,

komunitate zabalago baten parte sentitzen dira. Gorago aipatu dugun moduan, erosoago eta libreago sentitzen dira gazteleraz mintzatzen direnean, baina horrek kontraesan handia suposatzen die. Euskaraz asko hitz egiten ez den zonalde guztietan gertatzen den moduan, euskara erabiltzeko duten motibazioa sinbolikoa da (*gure hizkuntza, hemengo hizkuntza...*), eta ez horrenbeste motibazio komunikatiboa (*hitz egiten dugun hizkuntza delako*).

Niri ematen dit pena, kontsideratzen dugu dela gure hizkuntza eta dugu arazo gehiago hitz egiteko gure hizkuntza beste bat baino.

-Adibidez, zaude hitz egiten denbora guztian erdaraz eta esaten duzu, joder tio, gara euskaldunak, o sea, dakigu euskara eta ez dugu inoiz egiten, o sea pentsatzen baduzu, agian ez baduzu pentsatzen, ba bueno.... Baina pentsatzen baduzu, da pixka bat nola derrochar, sabes.

-(Ikerlaria): Derrochar?

- Derrochar, bai, da nola... erosi eta ez erabili... pues tontakeria bat da hori.... Nola erosi eta ez erabili, horretarako ez erosi.

Karrikaluze elkarteak:

Gaztetxo guztiek oso modu positiboan ikusten dute Karrikaluzeren jarduna, baina jardun hori oso lotuta ikusten dute haur eta gazteen aisialdiari, haietako batzuk ere oso ongi baloratu dute EuskaldunON Astea eta sortu berri den antzerki tailerra. Inork ez du deus ere aipatu BI.ZERO aldizkariak, ezta kultur programazioak ere. Elkartearen lana txalotzekoa dela uste dute, eta egun gizartean dagoen joera indibidualisten kontrako adibide bezala ere ikusten dute. Elkarteak duen boluntarismoa ere oso ongi ikusten dute.

Iruditzen zait elkarte oso ona, jartzen dute enpeñoa elkarteak sortzeko... eta... pues, haurrak egoteko ongi, ondo pasatzeko eta hori, eta nire ustez, pues hori da nola... pertsona horiek ez dute pentsatzen bakarrik beraiengan, o sea, pentsatzen dute besteengan, (...) eta hori iruditzen zait oso jende eskuzabala.

Azkenik, Karrikaluze elkarteak Atarrabian egiten duen lanak eragina duela uste dute, izan ere, haien ustez, euskara gehiago entzuten da Atarrabian inguruko herri eta auzoetan baino eta honez gain, inguruan baino eskaintza zabalagoa dago euskaraz egiteko.

11. ONDORIOEN LABURPENA

- ISEKAN parte hartzen duten gaztetxoek beren burua ez dute haur bezala ikusten, baina gazte bezala oraindik ere ez. Haur izatetik gazte izaterako trantsizioan daude.
- ISEKako gazteenek Atarrabia herri dinamiko bezala ikusten dute, helduagoek, aldiz, monotonia gehiago nabari dute herrian, jai eta ospakizun egunetan izan ezik.
- Aisialdia **klaserik ez duten denbora** da, baina aisialdi maila ezberdinak sailkatzen dituzte denek, sailkapenaren ardatza AUTONOMIA da, hau da, gaztetxoek nahi dutena egiten dutenean, zertan, non eta norekin egon erabakitzen dutenean, hori da aisialdiaren mailarik gorena. Maila honen azpian bi azpi-maila kokatzen dituzte, azpi-maila hauek bi ardatz hauen inguruan sortzen dituzte: KONPROMISOA eta DIZIPLINA. Tarteko aisialdi honetan **kirola** kokatzen dute, konpromiso eta diziplina maila minimo bat eskatzen die gaztetxoei. Azpiko mailan, ordea, **musika edo ingelera ikasketak** kokatzen dituzte.
- Gaztetxoei zertan eta non zebiltzan galdetzerakoan, lagunekin egoten zirela erantzun zuten, hau da, egiten dituzten jardueri eta egoten ziren espazioei nolabaiteko garrantzia kendu zioten eta zituzten harremanei eman zieten zentraltasuna.
- Gaztetxoek elkartzeko espazio propioen faltan, eguraldi ona eginez gero, espazio publikoa erabiltzen dute, kalean, parkeetan... egoten dira. Zein jarduerak egiten zituzten galdetu zitzaizenean, denetik erantzun zuten, kirola egin, banku batean egon, hitz egin, paseatu, zentro komertzialetan egon (zineman, joko-aretoetan)... Eguraldi txarra egiten duenean, aldiz, lagun baten etxean egoten dira pelikulak eta telesailak ikusten edo bideo-jokoetan jolasten.
- Ezagutzen dituzten bestelako jarduera eta ohiturekiko **ezberdin** ikusten dute Iseka. Ohitura eta jarduera horiek eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdi librea dira. Honez gain, koadrila itxiak suposatzen duen egoera estatikoaren kontrakotzat ikusten dute ISEKA.
- Isekan parte hartzearen arrazoiak anitzak dira, ongi pasatzen dute, lagun berriak egiten dituzte eta **egitasmo fresko eta lotsagabea** iruditzen zaie. Lotsagabetasun horrek ISEKAN konplexurik gabe jokatzera bultzatzen ditu gaztetxoak, konplexu hauek kenduta haien benetako izaera erakusteko aukera ematen die.
- Gaztetxoen artean oso harreman ona dutela esan dute guztiek, haien arteko harremanetan errespetu eta enpatia handia nabari da. Talde izaera handia erakutsi dute partaide guztiek.

- Begiraleekin duten harremana oso hurbila eta konfiantzazkoa da, hori da ISEKAko giro onaren gako garrantzitsuenetako bat. Nahiz eta begiraleek saioetan boterea eta autoritatea duten, gaztetxoek ez dituzte autoritate bezala ikusten, **ERREFERENTE** ikusten dituzte. Gaztetxoek autoritatea irakasle eta gurasoekin identifikatzen dute, ez begiraleekin. ISEKAko partaideek egitasmoa freskoa, lotsagabea eta dibertigarria ikusteko arrazoi nagusiena begiraleek saioetan erakusten duten izaeran dago.
- Atarrabia bezalako eremu erdaldunduetan zaila da haur eta gaztetxoek erabileran eragitea. Gaztetxo hauek euskaraz aritzeko dituzten aukera bakarrak ikastetxeetan, dantzan (haietako batzuk) eta ISEKAN aurkitzen dituzte, gainerako jarduera gehienak gazteleraz ematen dira.
- Oro har, ISEKAN hasi zirenetik euskaraz gehiagotan aritzen direla aitortu dute gaztetxo hauek, baina zailtasun asko ikusten dituzte. Batetik, erregistro informala falta, bestetik, koadrila gehienetan bada euskaraz ez dakien edo aritu nahi ez duen norbait.
- Kanpaldien ondoren euskaraz aritzeko ohitura hartzen dute gaztetxoek, nahiz eta gero urak bere onera etortzen diren berriz ere, ingurune erdaldundu horren eraginez.
- ISEKAko gaztetxo hauek euskara bere hizkuntza dela sentitzen dute, txikitatik hitz egiten dutena eta *hemengo hizkuntza*. Harro daude euskal hiztunak direlako, pribilegiatuak sentitzen dira eta haietako batzuk aipatu dutenaren arabera, komunitate zabalago baten parte sentitzen dira.
- Erosoago eta libreago sentitzen dira gazteleraz mintzatzen direnean, baina horrek kontraesan handia suposatzen die.
- Gaztetxo guztiek oso modu positiboan ikusten dute Karrikaluzeren jarduna, baina jardun hori oso lotuta ikusten dute haur eta gazteen aisialdiari, haietako batzuk ere oso ongi baloratu dute EuskaldunON Astea eta sortu berri den antzerki tailerra. Inork ez du deus ere aipatu BI.ZERO aldizkariak, ezta kultur programazioaz ere.
- Karrikaluze elkarteak Atarrabian egiten duen lanak eragina duela uste dute, izan ere, haien ustez, euskara gehiago entzuten da Atarrabian inguruko herri eta auzoetan baino, eta honez gain, inguruan baino eskaintza zabalagoa dago euskaraz egiteko.
- **Azken hausnarketa:** ISEKA pertsonen eta harremanen egiten dute arrakastatsu. Egitasmoa hobe daiteke, eta denboraren poderioz, hobetzen joanen da, baina egitasmoak duen aktiborik handiena, ISEKA osatzen duten eta osatuko duten pertsonengan dago.

12. BIBLIOGRAFIA

Hernandez, J.M:

- *Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 2005.
http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/cuaderno_sociologico_vasco_16/es_cu_soc16/adjuntos/csv16.pdf
- *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur*. Euskaltzaindia. 2003
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2011/hernandez.pdf>

Berrio-Otxoa, K, Hernandez, J.M eta Martinez, Z: *Gaztetxoak eta aisialdia*.

Etorkizuna aurreikusten (2001-2002). Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 2003.

http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informe_estudio/cuaderno_sociologico_vasco_13/eu_cu_soc13/adjuntos/csv13.pdf

Hainbat egile: *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*. 2009.

<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketaI.pdf>

Hainbat egile: *Erabileraren GPSa. Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-hartzeko gida*. Soziolinguistika Klusterra. 2011.

<http://www.soziolinguistika.org/eu/gazteak>

Conde, Fernando: *Los grupos triangulares como espacios transicionales para la producción discursiva* eranskin metodologikoa: *La vivienda en Huelva. Culturas e identidades urbanas* lanean, Sevilla, 1996. Fundación El Monte. Junta de Andalucía.

<http://infodigital.opandalucia.es/bvial/handle/10326/908>

Martinez, Z: *Giza egintza, gizartearen egituraketa aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak*. EHU. 2002

http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Zesar_Martinez.pdf

Feixa, C: *Generación XX. Teorías sobre la juventud en la era contemporánea*. Revista Latinoamericana de ciencias sociales. 2006.

<http://www.umanizales.edu.co/revistacinde/vol4/Carles%20Feixa.pdf>

Fishman, J.A. : *Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan*. BAT Soziolinguistika aldizkaria, 10. alea. 1993.

<http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/10/Fishman.pdf>

Zalbide, M: Eskola hiztun bila. Eskola hiztun bila liburuaren lehenengo bi kapituluak. Eusko Jaurlaritza. 1991.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/eskola_hiztun_bila.pdf

Taller de Sociología, Gabinete de investigación social y estudios de mercado: Juventud en Villava-Atarrabia. 2009.
<http://www.villava.es/upload/docs/ESTUDIO%20SOCIOLOGICO.pdf>

Garzia, J., Egaña, A., Amonarriz, K: Euskararen Kalitatea: Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2004.
http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/euskararen_kalitatea_eu.pdf

Aurreko guztiez gain, Karrikaluzek luzatu zizkidan proiektu, memoria, eta beste hainbat testu erabili ditut lana osatzeko.